



A propósito de nada

Woody Allen

Hona hemen opari bat, Olentzerok ekarria 2020. urtean: koronabirusari esker eta urtarrilean izan dudan lan urriari esker, nahiko azkar irakurri ahal izan dudan 400 orritik gorako liburu bat.

Merezi al du liburu hau irakurtzea? Bai, dudarik gabe. Begira, ni beti ez naiz Woody Allen-en super fan horietako bat izan, baina denbora lagun, hura gero eta gehiago preziatzen ikasi dut. Egia esan, W.A.en film bat ikusten dudan bakoitzean, ondo pasatzen dut. Eta «Zelig» izeneko filmak, esaterako, oroitzapen ederra utzi zidan.

Liburu osoari dario Woody Allen-en umore berezia. Horrengatik bakarrik, merezi du liburu irakurtzea. Ez dugu ahaztu behar Woody Allen batez ere umorista dela. Ez da dramaturgo bat, hain zuzen. Umorea odolean darama. Haren nortasunaren parte da. Dohain horrekin jaio zen. Itsasoaren erdian itota hiltzeko zorian egongo balitz, irudika dezaket horrelako zerbait esaten: «Baso bat ur baino ez dizut eskatu, Mia».

Liburuan bi biografia daude, biak aldi berean garatuak: alde batetik, haren biografia pertsonala; eta beste batetik, haren biografia profesionala. Azkenari dagokionez, zinemaren munduarekin lotura daukaten erreferentzia eta zehaztasun asko eta asko ematen ditu: aktoreak, zuzendariak, gidoilariak, zuzendaritzako laguntzaileak, argazkilaritzakoak... Hamaika bat izen eta erreferentzia, haietako gehienak ezezagunak niretzat, eta horrengatik ziur aski pittin bat astuna egin zait zenbait momentutan, horrek liburuaz gozatzea eragotzi ez badit ere.

Woody Allen artista handia da, zalantzarik gabe. Jakina, norbait artista oso ona izan daiteke, eta gizatxar bat izan; horretaz ere zalantzarik ez. Dena den, nik ez dut uste W.A. halako gizatxar bat izan denik, batzuek leporatzen dioten bezala. Areago, nire ustez, ospe txar hori edo ospe txar horren zati handi bat, behintzat, Mia Farrow-ek ere mereziko luke Woody Allen-ek bezainbat. Bestelako hitzekin esanda: neure herrian Woody Allen «persona non grata» izendatu beharko banu, baldintza batekin egingo nuke: Mia Farrow ere «persona non grata» izendatzea. Izan ere, kontu honi buruz neure burua pixka bat dokumentatu eta gero, zera ondorioztatu dut: Mia Farrow-ek, iritzi publiko eta judiziala ez ezik, bere seme-alabak manipulatzeko gaitasun aparta erakutsi duela; eta bere buruaz eman nahi izan duen "amatxo zintzo" irudiaren atzean... *bluf* bat baino ez dagoela azaltzen duten egitate eta lekukotasun askotxo daudela (horietako batzuk beraren seme-alabetako batzuek emanak).

Nik oso garbi daukat: gaiztakeriak, gezurrak eta "bikotekide ohien" mendekuak genero-bereizketarik ez dute egiten. Eta honi buruz ez dut gehiagorik esango¹.

Woody Allen —artista, gidoilari eta zine-zuzendaria— gogoko dut. Ea noizbait euskaraz ere irakur dezakegun haren biografia. Bien bitartean...

I  **WOODY ALLEN**

¹ Dena den, onartu beharra daukat: alaba bera komunikabideen aurrean azaltzea, esanez, W.Allen-ek hartaz abusatu zuela, mendi bat birrintzeko modukoa da. Zaila da ez hartzea kontuan. Hala ere, adierazpen horien atzean dagoen guztia ikusita, nik benetan uste dut badaudela pisuzko arrazoi franko, pentsatzeko, adierazpen horiek nahita induzituak izan direla, urte luzeetan, sei urteko haurtxo baten zaugarritasunaz baliaturik; areago kontuan hartuta zeinen erraza den umetxo baten oroitzapenak eta pertzepzioa manipulatzeko. Nolanahi ere, adierazpen benetan gogorak dira, egiazkoak zein gezurrezkoak izan.